

XXXVI. EUSKAL
ANTZERKI
TOPA
KETAK
AZPETA



2018-KO UDAZKENA

URRIA

27. LARUNBATA

1766 AZKOITIKO eta AZPEITIKO GARIAREN MATXINADA
AZPEITIKO KULTUR MAHAIA
22:00etan, Soreasu Antzokian

AZAROA

1. OSTEGUNA

Helduentzat
LUR-XAKE PRODUKZIOAK
19:00etan, Soreasu Antzokian

2. OSTIRALA

Helduentzat
7ak Bat-ATX TEATROA
21:30etan, Soreasu Antzokian

ESTREINALDIA

3. LARUNBATA

Helduentzat
Txarriboda-HIKA TEATROA
21:30etan, Soreasu Antzokian

4. IGANDEA

Haur + Helduentzat
Inondik Inora-BENETANBE KONPAINIA
17:00etan, Soreasu Antzokian

ESTREINALDIA

5. 6. 8. 9.

SORMEN ASTEA

AZAROA 5. eta 6.

Antzerki tailerra: Oier Guillan eta Jabier Barandiaranen eskutik **Tartean dauden gorputzak** ikastaroa izango da hiru egunetan zehar.

AZAROA 8. OSTEGUNA

MIKROANTZERKIAK
MAITA(K) ALE BORROKA
20:00etan, Plaza Nagusian
KRONOPIA
21:00etan, Sanagustin Kulturgunean

AZAROA 7. OSTIRALA

Kulturaz Antzerki Sormen Egonaldiak:
2019ko deialdi berriaren aurkezpena
12:00etan, Sanagustin Kulturgunean

7. OSTIRALA

Helduentzat
Oxido-PEZ LIMBO
21:30etan, Soreasu Antzokian

10. LARUNBATA

Helduentzat
Dublindarrak-ADOS TEATROA
21:30etan, Soreasu Antzokian

11. IGANDEA

Haur + Helduentzat
Ulises-GORAKADA
17:00etan, Soreasu Antzokian
Xokolat (0-3 urteko umeentzat)
PARAISO TEATROA
17:00etan, Sanagustin Kulturgunean

12. 13. 14. eta 15.

ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKIA
11:00etan eta 15:30etan,
Soreasu Antzokian

2. eta 18. OIRA

"TXONTXONGILOEN AMETSAK"
Corrado Masacci-ren
Txontxongilo metodologia
Betharram Aretoan. Goiz Arratsaldez

15. OSTEGUNA

Helduentzat
Takoidun Zapata Gorriak
PISZIFAKTORIA-21:00etan,
Udaletxeko Ganbaran

16. OSTIRALA

Helduentzat
Elurra-EROMEN PRODUKZIOAK
21:30etan, Soreasu Antzokian

17. LARUNBATA

Helduentzat
Roman eta Julieta
BOROBIL TEATROA
21:30etan, Soreasu Antzokian

18. IGANDEA

Haur + Helduentzat
Linbo Planeta
DEJABU PANPIN LABORATEGIA
17:00etan, Soreasu Antzokian

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI ALTERNATIBOA

22. osteguna
Tomiris eta Agur eta Dolore
KAMIKAZ KOLEKTIBOA
ETA TIAK TEATROAK 21:30etan,
Gaztetxean
Arratsaldeko 20:00etatik
21:15etara jantoki bejeterianoa

24. LARUNBATA

XXXVI. Euskal Antzerki Ikuskizuna
Topaketen Amaierako

Martin Zalakain
ARTEDRAMA
21:30etan, Soreasu Antzokian

GOZATU EUSKAL ANTZERKIAZ ZATTOZ!



AGURRA

Urriaren bukaeratik aurrera, antzerkiak hartuko du Azpeitia. Aurten, Euskal Antzerki Topaketen XXXVI. edizioa egingo da Azpeitian. Azkar esaten da, baina 36 urtez, udazkeno euskarazko antzerkiak hartzen du gure herria. Hutsik egin gabe, gure hizkuntzan egiten diren antzerkiak taularatuko dira beste behin Soreasun, Gaztetxean, Sanagustin Kulturgunean eta udaletxean.

Urtero izan ohi da berezia. Beti izaten baita berezi egiten duen zerbait. Baina aurten, hasiera indartsua eta gogoangarria izango du. Berezi egingo duten elementu askoren nahasketa izango delako.

1766ko gariaren matxinadaren inguruko herri antzerkia taularatuko da. Herritarren historia, herritarrek sortua eta herritarrek taularatua. Ez da erronka makala.

Gure herriaren historiaren pasarte hori, Euskal Antzerki Topaketen sortzailearen beraren, Imanol Eliasen, sormen lanaren emaitza da. Historia taularatzeko egokitu eta hamarnaka herritarrek ekarriko dute gurera, Kultur Mahaiak bultzatutako ekimen hori. Poztekoa eta harro sentitzeko moduko ekimena izango da urriaren 27koa. Herriko historia herriko kultur zale eta kultur sortzaileen elkarlanetik abiatutako sormen prozesuaren emaitza izango baita.

Hasiera indartsua izango dugu, ez da dudarik, baina atzetik etorriko dena punta-puntakoa izango da. Beraz, urtero bezala, zuri antzerkizale horri, egingo dizut eskaera. Ez hutsik egin euskarazko antzerkiari. Zerbait hutsik ezin badu ikusleak delako. Zatoz, eta gozatu teatroaz.

ANTZERKIAN ELKARTUKO GARA!



SORMEN PROZESUEN BIDELAGUN

Ederra da antzezlan batek estreinuko egunera iritsi arte egiten duen bidea. Ederra eta nekeza, gozoa bezain gazia, malda gogorrez nahiz zelai oparoz betea. Bada sormen prozesu horietan bidelagun izan nahi dugu, babesa eta aterpea emanez, bidaiaren konplize bihurtuz.

ANTZERKI SORMEN EGONALDIAK GUREAN

Lau urte dira Azpeitiko Kultur mahaiaren Kulturaz Kooperatibak eta Azpeitiko Udalak proiektu eszenikoen sormen prozesuetan begirada jartzen hasi ginela eta urtez-urte jardun hori bultzatu, zaindu eta hobetzeko ahaleginak egiten aritu gara.

2018an zehar honako antzerki sormen egonaldiak burutuko dira Azpeitiko Soreasu Antzokian:

Garazi&Cia., *Erraia* lanarekin.

Benetan Be Teatroa, *Inondik Inora* lanarekin.

Rubik Konpainia, *Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak* lanarekin.

Atx Teatroa, *7ak bat* lanarekin.

Gainera, sormen esperientziak partekatzeaz gain, prozesu hauen bitartez herriko kolektibo desberdinekin hainbat mediazio ekimen eta beste hainbeste emanaldi herriratzea da gure helburua.

EUSKAL ANTZERKIGINTZAN ZUBIAK ERAKITZEN

Pasa den urtean Zubi proiektura batu ginetik gustura aritu gara lankidetzaz sare horretan lanean. Zubi euskal antzerki sortzaile berriei bultzada emateko sortu zen ekimena da, eta bertako kideek hautatua den proiektuari babesa emateko hartzen duten konpromisoa du oinarritzat. Azpeitiko Kulturaz Kultur Kooperatibak, Euskal Hirigune Elkargoak, Mendi Zolan Kulturgunea, Durangoko San Agustin Kulturgunea, Zornotza Aretoa, Elorrioko Arriola Antzokia, Zumaiako Aitamari Antzokia eta Artedrama Arte Eszenikoen Plataforma gara sormen zubigileak.




URRIAK 27, LARUNBATA

HELDUENTZAT - 22:00etan, Soreasu Antzokian

MATXINADA

AZPEITIKO KULTUR MAHAIA



FITXA ARTISTIKOA

- Gidaritza eta koordinazioa: Azpeitiko Kultur Mahaia
- Jatorrizko testua: Imanol Elias
- Gidoiaren moldaketa: Alaitz Olaiola
- Aktore zuzendaritza: Alaitz Olaiola
- Musika egilea: Unai Frantzesena
- Musika zuzendaritza: Unai Frantzesena
- Zuzeneko musika: Azpeitiko Musika Banda, Izarraitz Txistulari Elkarte, Ekaitz Larrazabal, Alain Sorazu
- Aktoreak: Olatz Prat, Felipe Murillo, Ignacio Arakistain, Jon Gurrutxaga, Jaime Amenabar, Josetxo Brey, Luis Mari Galdos, Itziar OIartzabal, Jokin Uranga, Beñat Lizaso, Haritz Etxeberria, Iban Amenabar, Iñaki Odriozola, Gaizka Larrañaga, Iñigo Antsorregi, Itsasi Dantza Taldea, Azketa Ahots Taldea, Julian Barrenetxea Abesbatza
- Offeko ahotsa: Nekane Zinkunegi
- Irudiak: Yuri Agirre
- Argiztapena: Iñaki Esnaola
- Teknika: Kulturaz kooperatiba

SINOPSISIA

1766ko Matxinada dakar antzokira ikuskizunak. Gariaren Matxinada bezala ere ezagutzen dena Azkoitia-Azpeitietan gertatu zen, jauntxoek gariaren prezioa igo eta herritarrak matxinatu zirenean. Maitasun istorio bat ardatz hartuta, herritarren matxinada kontatzen du herri antzerki musikal honek, bai eta ondorengo errepresioa ere, itxaropenari leihoa irekita utziz, ordea, injustiziaren kontra, herriaren alde, denok elkartuta borroka egiten badugu.

AZAROAK 1, OSTEGUNA

HELDUENTZAT - 19:00etan, Soreasu Antzokian

LUR

XAKE PRODUKZIOAK



SINOPSISIA

Julian jostailu denda zahar baten jabe da. Egun gutxi barru Ane, bere bilobak, sei urte beteko ditu eta opari berezi bat prestatzen ari zaio; berarentzat propio egindako panpina. Anek eta Julianek bidaia zirrargarri bat hasiko dute panpinarekin batera, desioak betetzen dituen izar majiko baten bila. Itxuraz abentura irudimentsua dirudienak Ane eta Jon, bere aitaren, arteko harremana berbideratzen lagunduko du. Azken aldian Jonek onarpen arazo bat dauka. Izan ere, Ane mutila da.

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Kepa Errasti
- Zuzendaria: Getari Etxegarai
- Zuzendari laguntzailea: Xabier Ormazabal
- Aktoreak: Erika Olaizola
Mikel Laskurain
Kepa Errasti
Nerea Gorriti
- Argiztapen diseinua: David Alcorta
- Musika konposizioa: Pascal Gaigne
- Eszenografia diseinua: Eider Ibarrondo
Isabel Acostabaitan

AZAROAK 2, OSTIRALA

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

7AK BAT

ATX TEATROA

7AK BAT

ESTREINALDIA

"Gaiztoetan gaiztoenak"



SINOPSISIA

Nondik dator gizakiaren gaiztakeria? Berezkoa da? Ekidinezina da? Gure kulturako zazpi pekatu kapitalak eta orokorrean pekatuaren ideia hartu eta, Victor Frankensteinek egin eban moduan, gizaki barri bati bizia emongo deusagu, groteskoa, basatia, gupidabakoa.... Komeria, satira eta sarkasmoaren lengoiagaz, guztiok alfonbra azpian ezkutatu ohi doguna, agerian geratuko da.

FITXA ARTISTIKOA

- Ideia: Atx Teatroa
- Aktoreak: Olatz Ganboa
Aiora Sedano
Esti Villa
- Soinu espazioa eta musikea Zarzaparrilla
- Jantziak: Ane Senhsucht
- Argazkiak: Ainhoa Resano
- Ilkus-entzunezkoak: Beittu video factory
- Eszenografia: Atx Teatroa
- Teknika: Atx Teatroa
- Ekoizpena eta banaketea: Atx Teatroa
- Zuzendaritza: Atx Teatroa

AZARDAK 3, LARUNBATA

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

TXARRIBODA

HIKA TEATROA

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: aktoreen inprobisazioetatik abiatuta Agurtzane Intxaurreagak idatzitako testua.
- Kolaborazioa: Kepa Errasti
- Kantuen letrak: Onintza Enbeita
- Kantuak: Antxon Valverdearen "Maitasunaz hil" kantuen melodia; Anariren "Naufragoa"; Afu taldearen "Oxígeno" eta "Cumbia" kantuen melodia; Afu taldearen "Banoa"; Imanolen "Izarapean" kantuen melodia. "Anteron" eta "Jon Zaharra" kantu herrikoien melodia.
- Antzezle taldea:
 - Sandra Fdez. Agirre: Mirari emaztegia eta Mertxera.
 - Patxi González: Patxi aita eta aitabitxia, Paco eta Tia Brijida.
 - Iñigo Aranbarri: Imanol senargaia eta Iña.
 - Kepa Errasti: Txusa ama-ordea eta Mila.
 - Juanjo Otero: Gari zerbitzaria, Manizaleseko lehengusuak eta Flores sargentua.
 - Iñaki Maruri: Koldobika pianisti, Mati Plast, Tia Gallega, Tio Sebastian eta langilea.
- Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga
- Zuzendari laguntzailea: Miren Gojenola
- Argiak: Xabier Lozano
- Jantziak: Oihana Legorburu
- Eszenografia: Xabier Mujika.
- Musika arregioak: Iñaki Maruri
- Musika baseak: Iñaki Dieguez
- "Cumbia" koreografia: Jenni Perlaza
- Diseinu grafikoa: Santos Bregaña (Atelier Laia)
- Kartelaren argazkiak: López de Zubiria
- Promozio argazkiak: Egoitz Bengoetxea "Otxabi"
- Promozio bideoak: Acrónica producciones
- Eszenografia errealizazioa: Eskenitek
- Talde teknikoa: Eraginestac
- Ekoizpen exekutiboa: Xabier Mujika, Hika.



SINOPSISIA


Mireiak eta Imanolek ezkongai bikote perfektua osatzen dute. Zorionaren irudi dira. Ezkondu egin dira gaur eta Patxi Bilbaok, emaztegiaren aitak eta Ipertolako handi-mandiak, antolatu du ospakizun gala. Festa itzela. —“Gaur txerrien antzera, jan, edan eta dantza egitea nahi dut!” Hitz horiekin egingo die harrera gonbidatuei. Guztiak bertan daudela dirudienean, ordea, Txusa azalduko da aretoan. Gizon gorputzean bizi den emakumea da Txusa eta Imanolen aitaren azken bikotea izan zen hura hil artean. Mireiak gonbidatu du ezkontzara. Emakumea atsegin du eta aukera polita iruditu zaio Imanolek Txusa hobeto ezagutu eta bere aitarena gaindu ahal izateko. Baina ezuste hau beste askoren hasiera besterik ez da izango eta ezkontza behar zue-nak, Txarriboda izaten amaituko du.

AZARDAK 4, IGANDEA

HAUR+HELDUENTZAT - 17:00etan, Soreasu Antzokian

INONDIK INORA

BENETANBE KONPAINIA



SINOPSISIA

Oso ga"antzitsua da postari batentzat beti erne egotea, beti sasoi mantentzea. Ez da lan makala postariok egin behar duguna, etxerik etxe, kalerik kale, mendirik mendi, bide, aire eta itsaso zabaletan zehar. Zuek bidalitako gutunak, postalak eta paketeak hartzailearengana garaiz helarazteko!

Beti zehatz eta zo"otz. Ezin da inondik inora paketerik zabaldu, gutunik ireki edo postalik iraku"i. Inondik inora ere ez.

FITXA ARTISTIKOA

- Zuzendaria: Erantzunaren zain
- Atzezleak: Patricia U"utia
Aiora Sedano
Leire Utxa
- Testua: Patricia U"utia, Shel Silverstein
- Musika: Asier Ituarte
- Argiztapen diseinua: erabakitzeke
- Ha"opak: Idoia Beratarbide
- Argazkiak: Pio
- Diseinu grafikoa: Amaia Garate
- Ekoizpena eta hedapena: BenetanBe
- Kanpo begirada: Dejabu Panpin laborategia
Pablo Ibarluzea

SORMEN ASTEA

AZAROAK 5 ETA 6

Antzerki tailerra: Oier Guillan eta Jabier Barandiaranen eskutik "Tartean dauden gorputzak" ikastaroa izango da hiru egunetan zehar.

- 12 orduko ikastaroa.
- Soreasu Antzokian.

Gorputza eta buruaren artean, definizioa eta indefinizioaren artean, profesionala eta amateurraren artean, kalitatea eta probokazioaren artean, egia eta fikzioaren artean, eszenatokia eta publikoaren artean, aktorea eta pertsonaiaren artean, pertsonaia eta pertsonaren artean, teatroa dena eta ez denaren artean dagoena ere bada teatroa.

Norberak idatzitako testu laburretatik eta material autobiografikoetatik abiatuta, irudi fisiko poetikoen sorkuntza praktikatuko dugu. Horretarako, performanceari loturiko imaginarioa, idazkuntza kolektiboa eta poesia bisualaren elementuak erabiliko ditugu, aktore-sortzailearen baliabideetan sakontzeko xedez.



AZAROAK 8, OSTEGUNA - MIKROANTZERKIAK



"MAITA(K) ALE BORROKA"

Ordua: 20:00

Lekua: Plaza Nagusian



"KRONOPIA"

Ordua: 21:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunean

AZAROAK 9, OSTIRALA

Kulturaz Antzerki Sormen Egonaldiak:

"2019ko deialdi berriaren aurkezpena"

Ordua: 12:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunean

KatapultaTour
Gipuzkoa



ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKIA AZAROAREN 13-14 ETA 15

AZAROAK 12, ASTELEHENA

- AMEZKETA
ZUMADI HERRI IKASTETXEA
"Jostailugilea ipuin musikatua"
"Hariz ari antzerkia"
- Ordua: 11:00etan
- Antzezleen maila: LH3tik-6ra
- Ikusleak: LH3tik-LH6ra
- KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA
"Hator-hi- zukuzine"
- Ordua: 15:30ean
- Antzezleen maila: DBH1
- Ikusleak: DBH1-DBH2

AZAROAK 13, ASTEARTEA

- BEASAINGO
ANDRAMENDI IKASTOLA
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlana:
Amama Benidorm-en
Hollywoodeko izarrak
- Antzezleen maila: DBH1-LH5
- Ikusleak: LH5-6-DBH1
- AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI
"zer da hau! hau komeria basoa"
- Ordua: 15:30ean
- Antzezleen maila:
LH5-6-DBH4
- Ikusleak:
LH5-DBH1-2

AZAROAK 14, ASTEZKENA

- ERREZILKO SAN MARTIN
HERRI ESKOLA
"Koadro lapurreta"
- Ordua: 11:00etan
- Antzezleen maila: LH5-6
- Ikusleak: LH osoa
- KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA
"Danbor magikoa"
- Ordua: 11:30ean
- Antzezleen maila: LH4-5
- Ikusleak: LH3-4
- AZPEITIKO HAUR ETA
NERABEEN ANTZERKI TALDEA
- 1. "Gauaren Egiak"
- 2. "Gaitz Erdi"
- Ordua: 15:30ean
- Antzezleen maila: LH3tik DBH2 arte
- Ikusleak: 8-12 urte bitartekoentzat

AZAROAK 15, OSTEGUNA

- BERMEO
SAGRADO CORAZON
"Negar egiten ez zekien printzeza"
"Pirata izan nahi diot"
"Edabe Magikoa"
- Ordua: 15:30ean
- Antzezleen maila: LH5
- Ikusleak: LH 3-4 LH 5-6



CORRADO MASACCI

"TXOTXONGILO EGILEAREN
40. URTEURRENA"

2018ko AZAROAREN 2tik 18ra BETHARRAM ARETOAN ERAKUSKETA

Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara
Larunbat eta igandetan 12:00etatik 14:00etara

40. urteurrena ospatzeko, denbora honetan zehar egindako lanari, errepaso egiten dio erakusketa honek. Bertan ikusgai izango dira, urte hauetan egindako txotxogiloen hautapen bat eta azken produkzioak.

IKASTETXEENTZAT ESKAINTZAK

Egilearekin erakusketa gidatua ikastetxeei bereziki zuzenduta, eskola orduetan.

Ikasleen adina: 4urtetik 12 urtera bitartekoa.
Goizean 9:15ean hasi eta hiru ordu laurdeneko iraupena izango du saio bakoitzak.

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

OXIDO

PEZ LIMBO

oxido



SINOPSISIA

Hiru persona berezien izaerak bultzatuta, ez-ohiko egoeratan topatuko dira eta bizitza ikusteko duten moduak, gertaerak ustekabean garatzea ekarriko du.

Hiru egoera barregarik agerian uzten dute pertsonaien herdoildutako giza harremanak, baita bizi diren gizartearen herdoila ere. Publikoarekin gertutasuna eta konplizitatea dira umore garratzaz osaturiko pieza honen ezinbesteko osagaiak. Ikuskizuna gainera hiru toki ezberdinetan gauzatzen da.

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Creación Colectiva
- Zuzendaritza: Raúl Camino
- Antzezleak: Raúl Camino
Begoña Martín Treviño
Aitor Pérez
Ainhoa Alberdi
Eduardo Hernando
- Jantziak: La Funambulista
- Jantziak: Eskenagorri

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

DUBLINDARRAK

ADOS TEATROA



SINOPSISIA

Dublin, 1904 urteko Errege Eguna. Morkan andereñoak musika irakasleak dira eta urtero bezala, afaria antolatu dute beren egoitzan. Adin eta sexu desberdineko maila ertain-altuko pertsonaiak gaua giro ezin hobean igarotzen ari dira eta horien artean daude Gabriel (anfritioien iloba) eta Gretta, bere emaztea.

Gabriel protagonista, gonbidatu "perfektua" da, zentzuduna, brindisaren aurretik diskurtsoa botako duena, gizon sentikorra, kultua eta familiako aita zuzena. Dena da perfektua, nahiz eta giroak kutsu dekadente eta artifiziala izan. Baina festa bukatzeaz dagoela, abesti baten doinuak Gretta negar egiteraino hunkitzen duela ohartzen da Gabriel.

Zein sekretu gorde dezake emakume sentikor honek bere bihotzean? Maite duen gizon baten alboan egotera eraman duen sekretu bat, baina beharbada ez du beste hura maite izan zuen bezain beste maitatzen. Grettak Gabrieli ikusarazten dio bizitza guztia daramala bera maitatuz hil zen gizon baten doluaren zama bere bihotzean eramaten.

FITXA ARTISTIKOA

- Egokitzapena Jose Antonio Vitoria Eta Garbi Losada
- Zuzendaritza: Garbi Losada
- Aktoreak: Asier Hormaza, Naiara Arnedo, Lierni Fresnedo, Iñake Irastorza, Klara Mendizabal, Isidoro Fernandez, Aitor Beltrán, Asier Sota
- Ekoizpen Exekutiboa: Jose Antonio Vitoria
- Argiztapen Diseinua: Xabier Lozano
- Musika: Javier Asin
- Euskarazko Bertsioa: Bego Losada
- Zuzendari Laguntzailea_Dorleta Urretabizkaia
- Bideoa: David Bernués
- Espazio Eszenikoa: Jose Antonio Vitoria Eta Garbi Losada
- Jantziak Tytti Thusberg
- Ile-ApaimketaEstibaliz Rivas
- Eszenografia EgileakA Oscuras
- Atrezzoak Diana Cristóbal
- Diseinu Grafikoa Estudio Lanzagorta
- Argazkiak: Eztiphoto
- Zuzendaritza Teknikoa: Karlos Pereira
- Teknikariak: A Oscuras, Jorge Rivero
- Ekoizpena: Leyre Ortiz, I. Villalba
- Ekoizpen Laguntzailea: Tomas Vitoria

Publiko guztientzat haurrak 7 urtetik aurrera-17:00etan, Soreasu Antzokian

ULISES GORAKADA



SINOPSISIA

Greziako Jainkoek, Olinpo mendiaren gailurretik, gizakien bizitzak gobernatzeko zituzten. Beraiek erabakitzen zuten gizakiak babestu eta baztertuko zituzten, eta eragin nabarmena zuten pertsonengan. Batzuk, hala ere, Jainkoen apetak desafiatzera ausartu ziren, eta, hala, beren haserrearen biktima bihurtu. Halaxe gertatu zitzaion Ulisesi.

Poseidon Jainkoaren semea itsu utzi zuenean, Jainkoa iraindu egin zen eta Itakara itzultzea galarratzi zion; Mediterraneo itsasoan noraezean utziz.

Ulisesen istorioa bidaia baten istorioa da. Bidaia, azken finean, bizitzaren metafora baita, zailtasunen kontrako borrokaren eta zailtasunak konpontzeko moduaren isla.

Ulisesi bere Itaka aurkitzen eraman gaitzala eskatuko diogu, ea guk ere gure Itaka aurkitzen dugun. Bizi bedi heroi greziarra!

FITXA ARTISTIKOA

- Egiletza: Sorkuntza lan kolektiboa, Julio Salvatierraren egokitzapena oinarri hartuta/ Creac
- Zuzendaritza: José Carlos Garcia
- Zuzendari laguntzailea: Nuria Cuadrado
- Aktoreak: Aritza Rodríguez, José Cruz Gurrutxaga, Fran Lasuen, Natxo Gomes, Javi Tirado
- Musika zuzendaritza eta konposaketa: Fran Lasuen
- Eszenografia eta atrezzoak: Javi Tirado
- Jantziak. Diseinua eta errealizazioa: Ikerne Jiménez
- Argiztapena: Ion Chávez
- Soinua: Igor Iglesias
- Itzulpena: Idoia Barceló
- Zuzendaritza artistikoa eta ekoizpena: Alex Díaz

Antzerki familiarra 3 urtetik gorako umeentzat-17:00etan, Sanagustin Kulturgunean

XOKOLAT

PARAISO TEATROA



SINOPSISIA

“Xokolat” ikuskizuna Paraíso Antzerkia konpainiak sortu du “Small Size Performing Arts for Early Years” Europako proiektuaren barne dagoen “Miradas curiosas / Wide Eyes” sormen-prozesuaren esparruan.

Proiektu honek 17 parte-hartzaileetako bakoitzaren ikerketa-prozesuak uztartu ditu ikerketa-prozesu erkide batean, honela audientzia gaztetxoekin jakin-minaren esanahiaren inguruko adimen kolektiboa sustatuta.

Era berean, bazkide parte-hartzaile bakoitzak ikerketa-prozesuetan izandako aurkikuntzetan oinarritutako ikuskizun baten sormen- eta produkzio-prozesu bat garatu du. Parte-hartzaile bakoitzak arlo bat hartu du abiapuntu gisa sormena sustatzeko. Paraiso Antzerkia konpainiak hasieratik erabaki zuen oso arlo “gozoa” aukatzea, txokolatea alegia, Euskadiko historiarekin estuki lotuta dagoena.

FITXA ARTISTIKOA

- Antzezleak: Rosa A. García
Maitane Goñi
- Argia eta Soinua Biran: Kandela Iluminación
- Eszenografia eta Jantziak: Elisa Sanz
Teatro Paraíso
- Eszenografiaren Sorrera: Luis Martioda
Tomás Fdez. Alonso
Utilleria-Atrezzo S.L.
- Argiztapenaren Diseinua: Miki Arbizu
- Argazkiak: Adrián Ruiz de Hierro
- Musika Hautaketa: Ramón Molins
- Produkzioa: Teatro Paraíso
- Dramaturgia: Ramón Molins
Rosa A. García
- Zuzendaria: Ramón Molins

HELDUENTZAT - 21:00etan, Udeletxeko ganbaran

TAKOIDUN ZAPATA GORRIAK

PISZIFAKTORIA



SINOPSISIA

Beste maitasun poema bat idatzi dio.

Luzien detektibearen libreta beteta dago Lilirentzako poemez, eta hutsik susmagarrien izenez. Kalaportu herri tristan, hiltzaileak ere koldar hutsak direlako, eta ez dutelako inor hiltzeko ausardia nahikorik. Liliren burua beteta dago Broadwayn dantzatzeko ametssez, eta hutsik indarrez, adorez, kemenez.

Portuko tabernan zimeltzen dira Lili eta Luzien gau eta egun, Anuskaren piano basati eta lotsagabearen erritmoan, haien patu miserablea madarikatzen. Harik eta begiak ireki eta ingurura begiratu duten arte.

FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak:
Haizea Paris
Jabi de la Ydalga
Igor Arzuaga
Mikel Ayllon
- Zuzendaria: Pablo Ibarluzea
- Gidoia: Mikel Ayllon
- Karakterizazioa: Maite Gutierrez
- Jantziak: Truca Rec

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

ELURRA

EROMEN PRODUKZIOAK



SINOPSISIA

Elurte bortitz baten ondorioz, herri txiki bateko biztanleak inkomunikatuta geratuko dira. Egunak aurrera doazela, sineskeriak eta iraganeko pasarteek hartuko dute boterea... Zer egingo dute herritarrek egoera bukatu dadin? Nola apurtu inkomunikazioa?

FITXA ARTISTIKOA

- Antzezleak: M.J.: Marije Izeta, Juan: Juan Alberto Gaztañaga, Gurutze: Inma Izeta, Mery: Lorea Alberdi, Jon: Ekain Ibarguren, Abigail: Anne Uriá, Eli: Goizane Barroso, Maritxu: Arantxa Rezabal, Mila: Amaia Odriozola, Josetxo: Mikel Ibarguren, Don Miel: Manolo Gaztañaga, Gabriela: Leire Egaña, Lisistrata: Ainhoa Casina, Clitemnestra: Edurne Errasti, Mirentxu: Estitxu Elduaian
- Musika: Eñaut Gaztañaga
- Argiztapena: Joel Crespo
- Artea eta Eszenografia: Eromen
- Diseinua: Eromen

HELDUENTZAT - 21:30etan, Soreasu Antzokian

ROMAN ETA JULIETA

BOROBIL TEATROA



SINOPSISIA

Roman bere emaztearen heriotzagatik zeharo deprimituta dagoen 80 urteko adineko bat da. Dependenzia fisikoa pairatzen du eta hiru seme-alabak txandatu egiten dira 24 orduz zaintzeko. Hiru hilabeteren ondoren, seme-alabak guztiz nekatuta daude eta zaharren egoitza batean lekua lortu zain dauden bitartean, auzoko erretorearen aholkuz, paperik gabeko etorkin bat hartzen dute zaintza lanetarako, nahiz eta Roman beti ukatu izan den seme-alabak ez diren inork zaindua izatera.

Gero eta muturrerago doan egoera honek, seme-alabak beren iragan, frustrazio, liskar eta batez ere, gainbehera datorren aitaren autoritarismoari aurre egin beharrean jarriko ditu. Maitasuna gau ilunaren erdian izar bat bezala sortuko da, baina dirugoseak, harrotasunak, intransigentziak eta aurreiritzi zein beldurrek, izar horri jarraitzea galaraziko diete. Itsumena erabatekoa da eta tragedietan bakarrik sortzen den irmotasunez gaindituko da patua.

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Iñaki Rikarte
- Aktoreak: Jose Ramon Soroz
Tanya De Roberto
Ainhoa Aierbe
Iñigo Aranburu
Alazne Etxeberria
- Musika: Ekhi Vegas
- Jantziak: Ikerne Gimenez
- Eszenografia: Ikerne Gimenez
- Argi Diseinua: Pedro Yagüe
- Zuzendaria: Anartz Zuazua

HAUR+HELDUENTZAT - 17:00etan, Soreasu Antzokian

LINBO PLANETA


DEBAJU PANPIN LABORATEGIA

SINOPSISIA

Inork oroitzen ez duen leku bat. Ondarrez, zaborrez eta behin etxe izan zirenen hondakinez inguratutako leku urrun bat. Gerrak atzean utzitako hondamendia agian? Errefuxiatu kanpamentu abandonatu bat akaso? Edo nor daki, galaxia honetako beste planeta bat beharbada.

Gizaki bakarra bizi da bertan, zortzi urteko neskatila bat: Numa. Bakarrik bizitzera ohitua, hondamendiaren erdian bere bizilekua sortzea lortu du eta tarteka jasaten dituen erasoei bizirauten ere ikasi du. Aspaldian aspertzen hasia da ordea, faltan botatzen baititu lagunak, familia eta ia oroitzen ez duen bere herria.

Goiz batean sekula jolasteaz aspertuko ez den lagun bat azaldu zaio, Ibrahim txakurra. Eta elkarrekin inoiz susmatuko ez luketen bidaia batean murgilduko dira, irudimenaren indarrari esker bakarrik egin daitekeen bidaia batean. Numak etxera itzultzeko bideari ekingo dio, bere arbasoek, desertuko nomadek, aspaldi egin zuten moduan. Izarrei jarraika.



FITXA ARTISTIKOA

- Idazketa eta zuzendaritza: Aina Gurrutxaga
- Zuzendaritza eta eszenografia: Urko Redondo
- Antzezleak: Miren Alkala eta Alvaro Garayalde
- Publikoa: 6 urtetik gorakoak
- Iraupena: 50 min

HELDUENTZAT - 21:30ean, Gaztetxean

TOMIRIS ETA AGUR ETA DOLORE

KAMIKAZ KOLEKTIBOA ETA TTAK TEATROAK

ZIKLO PEREZIA
ANTZERKI ALTERNATIBOA

20:00 ETATIK 21:15 ERA
LUNTX BEJETARIANOA



SINOPSISIA

Mendeku zilegiaren ganeko bakarkako ikuskitzuna da. Ardatz nagusitzat biolentzia matxistea daualarik, errealidadea eta fikzioa buztartzen dituan istorioa. Gordin bezain sentsuala, erreal bezain fantastikoa, zorrotz bezain zolia.

FITXA ARTISTIKOIA

- Egilea: ATX Teatroa
- Eszenografia eta Atrezzo: ATX Teatroa
- Argiztapena: ATX Teatroa
- Jantziak: Ane Galera / Paula Unibaso
- Musika: Palanka Kolektiboa
- Ekoizpena: ATX Teatroa
- Banaketa: ATX Teatroa

HELDUENTZAT - 21:30ean, Soreasu Antzokian

MARTIN ZALAKAIN

ARTEDRAMA



FITXA ARTISTIKOIA

- Zuzendaritza: Juan Antonio Urbeltz
- Taula zuzendaritza: Ander Lipus
- Idazkera: Harkaitz Cano
- Koreografia: Juan Antonio Urbeltz
- Dantzari taldeak: Argia (Donostia), Kezka (Eibar), Haritz (Elgoibar), Duguna (Iruñea), Maritzuli (Miarritze), Elai Alai (Portugalete), Arkaitz (Añorga), Astigar (Astigarraga), Gure Kai (Deba)
- Dantza Maisu/Maistrak: Fernando Ariztizabal, Jexux Larrea, Iñaki Arregi, Garikoitz Otamendi, Itziar Otamendi, Josu Garate
- Talde arduradunak: Claude Iruretagoyena, Oier Araolaza, Aritz Ibañez, Iker Gil, Eire Vila
- Musika sorkuntza: Marian Arregi, Mikel Urbeltz
- Musikariak: Marian Arregi (akordeoia), Mikel Urbeltz (biolina), Arantzazu Mujika (biolina), Maider Urbeltz (arpa, ahotsa), Imanol Urkizu (panderoak), Ander Blasco (akordeoia), Isabel Abarzuza (mandolina), Rosana Ascacibar (lautea), Ander Percz (gitarra), Beñat Lopez (perkusioa), Aitor Huarte (txirula), Ibai Osinaga (bonbardino), Ibai Indart (tronpeta), Julen Leuza (bonbardino), Osel Molinet (klarinetea), Iñaki Sagardoi (txistua), Iruñeko Ezpelur dultzaineroak: Tomas Diaz, Xabier Maritxalar, Shanti Diaz
- Aktorea: Ander Lipus
- Soinuztatzea: Angel Katarain
- Argiztapen diseinua: Junki Mayo (ArgiBeltz)
- Argiztapena: Eragin
- Jantziak: Amaia Bueno
- Makillajea: Mertxe Ibañez
- Arduradun ekonomikoa: Garbiñe Argaña
- Irudiak: Tomas Hernandez-Mendizabal
- Argazkiak: Iñaki Zugasti
- Webmaster: No Media Estudio
- Ekoizpena: Ikerfolk
- Hedapena: Artedrama

SINOPSISIA

Bere patuari ihes egin ezin dion abenturazalea da Martin Zalakain. Pio Barojaren lanik estimatuenetakoa den eleberrri hau, western karlistatzat jo daiteke kasik: mendiko ibilerak, maitasunaren hasi-masiak, estraperloaren estuasunak...

Tabernako beroaldien lekuko izango gara, eza gutuko ditugu gerrako trantze gordinak eta bideetan barrena topatutako adiskidantza zintzoak zein aliantza interesatuak.


“Bizirik nago, baina barruan dudak bizitza erabili ezean, usteldu egiten zait”, dio Martinek, arriskuen ezaxola, sasiaren lagun.

Gozotik eta tragikotik, bietarik du asko Zalakainen bizitzak. Ez du ekintzarik falta, ez eta ospakizunik ere.

Heroiaren kasta eta katarsiaren aldarria hain bere dituen nobela batek, izan ote dezake dantzaren bidezkoa baino taularatze hoberik?

Sarrerak online

www.azpeitia.eus-en



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba